# baikara

Gipuzkoako Ikasleen Gurasoen Federazioa

**Donostia · Gipuzkoa**

Diciembre 2017ko Abendua



## Herri-eskoletako ikasleak prestu asko agertu dira Titirijaira



### DONOSTIA

14ª edición Infantil y Juvenil de Arte y Derechos Humanos



### GAURKOTASUNA

Euskal Eskola Publikoaren Jaiaren aurkezpena

# gabonak zuretzat

## HAURRAK

2017



gazteria@donostia.eus

943481909

Aiete
Egia
Gros
Ulia
Erdialdea
Txomin enea
Altza
Amara
Loiola
Antigua
Igeldo
Intxaurrondo
Bidebieta
Ibaeta
Parte Zaharra
Añorga
Martutene

www.donostia.eus/gabonakzuretzat

DONOSTIA SAN SEBASTIÁN
Gazteria

donostia kultura

# aurkibidea índice

## donostia

**04-08**



**P. 4 Conciertos para escolares**

p.5 "0-5 urte: Haurren Ongizatea Oinarri" Programa

p.6 DBHko ikasleek Donostiako oroimen historikoa ezagutuko dute bisita gidatuen bitartez

p.7 14ª edición Infantil y Juvenil de Arte y Derechos Humanos

p.8 Breves-Laburrak

## gipuzkoa

**09-15**



**p. 9 Alkoholak dituen arriskuei buruzko saioak (Olazabal Institutua-Legazpi)**

p.10-11 Herri-eskoletako ikasleak prestu asko agertu dira Titirijaira

p.12 Egape ikastolak Euskadiko Eskola Kontseiluak sustatzen duen proiektu batean parte hartzen du

p.13 Domingo Agirre participa activamente en 'El día internacional contra la violencia hacia las mujeres'

p. 14 Euskal Eskola Publikoaren Jaiaren aurkezpena

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Hezkuntza Atala
Sección de Educación

## BAIKARA FEDERAZIOA

Es la Federación de Asociaciones de Madres y Padres (AMPAS) de los centros de la enseñanza pública no universitaria de Gipuzkoa. En la actualidad están asociadas a la Federación 156 AMPAS, lo que representa más del 93% del total de AMPAS de Gipuzkoa. Por ello BAIKARA es la representante y portavoz del colectivo mayoritario de madres y padres del alumnado de los centros públicos de Gipuzkoa, actuando como tal en las negociaciones y foros en los que se debate y deciden los diferentes aspectos que puedan afectar a la educación pública en Gipuzkoa.

Gipuzkoako ikastetxe publiko ez-unibertsitarioetako guraso elkarteen (IGEen) federazioa da. Gaur egun, 156 IGE dira Federazioko kide, hau da, Gipuzkoako IGEen %93 baino gehiago. Horregatik, BAIKARA da Gipuzkoako ikastetxe publikoetako ikasleen gurasoen ordezkari eta bozeramaile nagusia, eta hala jarduten du Gipuzkoako hezkuntza publikoan eragina izan dezaketen hainbat alderdi eztabaidatzen eta erabakitzen diren negoziazioetan eta eztabaidetan.

**www.baikara.org** **Baikaragurasoak** **@BaikaraF**

baikara
Gipuzkoako Ikasleen Gurasoen Federazioa

ARGITARATZAILEA: BAIKARA FEDERAZIOA
Baso-Txiki Kalea, 36, atzealdea. 20015 Donostia. Tfno 943327208. Fax. 943274977.
e-mail: baikara@baikara.eus / rosa@baikara.eus

Koordinatzailea: Rosa Izquierdo. Erredakzioa eta argazkiak: Iñigo Royo, EHIGE, Gain Zuri (Urretxu), Egape (Urnieta), Domingo Agirre LHI (Legazpia), Fleming herri ikastetxea (Villabona). Diseinua: Ane Galdos. Inprimatzailea: SVP. Lege gordailua: ISSN 1697-9109.

# CONCIERTOS PARA ESCOLARES

## El objetivo de este programa es acercar al público joven la música clásica en vivo, en especial la música sinfónica

La Orquesta Sinfónica de Euskadi, con la colaboración del Ayuntamiento de Donostia, desarrolla desde el año 2010 los Conciertos para Escolares. Se trata de una actividad destinada a que el alumnado de educación infantil y primaria y de educación secundaria acuda a la sala de conciertos durante el horario escolar para escuchar a su Orquesta, siempre a través de propuestas especialmente diseñadas para ellos y ellas. El objetivo de este programa es acercar al público joven la música clásica en vivo, en especial la música sinfónica.

Esta temporada la programación del Aula de Música ha sido realizada poniendo especial cuidado para que se relacione directamente con la Temporada de Abono de la Orquesta: Beethoven y su inmortal sinfonía Pastoral, Britten y sus composiciones dedicadas a la infancia, y Shostakovich, aquí en su faceta bromista, y con su música casi "ligera", son algunos de los compositores que más sonarán en los Conciertos para Escolares, los Conciertos en Familia y los Ensayos Abiertos que proponemos. Contaremos con la novedosa presencia de nuestro director titular, Robert Treviño, que se pondrá al frente de uno de los proyectos para ofrecer a nuestros adolescentes su visión de la polémica Quinta Sinfonía de Shostakovich. Y como siempre, la danza, el teatro o la poesía nos ayudarán a crear ese momento único que es el concierto en vivo, en el que los músicos de nuestra Orquesta ponen lo mejor de sí mismos para emocionarnos y transmitirnos todo el potencial transformador de la música. Los conciertos para escolares se celebrarán, en el caso de Educación Infantil los días 22, 23, 24, 25 y 26 de enero, los de Educación Secundaria el 16 de febrero y los de Educación Primaria el 9 y 10 de mayo.










# “0-5 URTE: HAURREN ONGIZATEA OINARRI” PROGRAMA

## Jolas eta abestien tailerra abenduaren 28an eta 29an egingo da

Donostiako udalak, Gazteria Sailaren bitartez, hiriko haur, gazte eta nerabeen bizi-kalitatea hobetzeko ahaleginak egitea du helburutzat. Ildo horretan, 2017-2020 Plan Estrategikoa egin zen, aldi horretako helburuak eta erronkak nahiz 2017rako diseinatutako jarduera eta ekintza konkretuak jasotzen dituena. Dituen erronka handien artean, printzipaletako bat haur, gazte eta nerabeen sailak indartzea da, eta, horretarako, adin-tarteen araberako espezializazioa handitzea proposatzen da.

Haur-sailean, 0-5 urte bitarteko haurrentzako eta horien familiarentzako eskaintzaren gainean gogoeta egin dugu, eta “0-5 URTE: HAURREN ONGIZATEA OINARRI” programa diseinatu dugu.



Programak bi jarduera mota hartzen ditu:

-0-5 haurrentzat eta horien gurasoentzat egokitutako espazioa. Hor leku bat eskainiko da propio, gurasoak eta seme-alabak elkarrekin egon daitezen. Gurasoak izango dira jarduera aurrera eraman eta gidatuko dutenak, Zapaburu Elkarteko hezitzaileen laguntzarekin. Haur-garapenaren ezagutzan sakontzeko proposamen bat da, eta haziera eta hezierako praktikak ezagutzera emango dira.

-Hitzaldiak, tailerrak, ikastaroak: gurasoek 0-5 urte bitarteko beren seme-alaben haziera-hezierari buruz dituzten zalantzei eta beharrei erantzuteko proposamena, haurren ongizatea lortzeko.

Izena ematea ezinbestekoa izango da 0-5 urte bitarteko haurrentzat egokitutako espazioan parte hartzeko, bai eta jolas eta abestien tailerrean parte hartzeko ere. Abenduaren 28an eta 29an egingo dira biak, eta izena emateko telefonoa hauxe da: 943 481909.



# DBHKO IKASLEEK DONOSTIAKO OROIMEN HISTORIKOA EZAGUTUKO DUTE BISITA GIDATUEN BITARTEZ




## Martxoaren 1etik maiatzaren 31era bitartean

Donostiako Udalak aurten ere antolatu ditu "Donostiako oroimen historikoaren ibilbidea" bisita gidatuak, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleentzat. Gerra Zibilean, 1936ko Estatu kolpea eta diktadura frankistaren ondoren, gertatutakoa ezagutzera emango da.

Donostiako Udalak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleentzat "Donostiako oroimen historikoaren ibilbidea" bisita gidatuak antolatu ditu, martxoaren 1etik maiatzaren 31era bitartean. Aurten ere euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez egiteko aukera izango dute. Donostiako ikasleek aukera izango dute hiriko historia, oroimen historikoa eta giza eskubideen urraketen gaira hurbiltzeko, ikastetxetik kanpo historia modu interaktiboan lantzeko eta haiengan jarrera kritikoa sustatzeko. Ekimen honi esker, ikastetxean ikasturtean zehar landuko den gaia osatzea lortuko dute, eta, horretarako, ikasgelan lantzeko prestatu den material didaktikoaren laguntza izango dute.

Hauek dira ibilaldian zehar bisitatuko diren 1936ko estatu kolpeko eta frankismoaren garaiko Donostiako gertaera nagusien guneak: Easo plazako kioskoa (abiatzea); Garai bateko suhiltzaileen eraikineko sotoa (babeslekua); San Jose ikastetxea (atxikitze lekua); San Martzial kalea 48-50 (bonbardaketa lekua); Txurruka kalearen eta Askatasunaren hiribidearen bidegurutzea (komunikabideak eta zentsura); Maria Cristina hotela (borroka lekua); Nautikoaren pasabidea (fusilamendu lekua) eta Omenezko eskultura.

Ibilbideak ordu eta erdiko iraupena izango du eta martxoaren 1etik maiatzaren 31era bitartean, astelehenetik ostiralera izango dira, 9:00etatik 17:00etara, aukeratzen den ordutegian. Izen ematea egin daiteke info@komazk.com helbide elektronikoan edo 943456000 telefonora deituz.







# 14ª EDICIÓN INFANTIL Y JUVENIL DE ARTE Y DERECHOS HUMANOS

## El plazo de entrega de los trabajos finalizará el 29 de enero de 2018

El Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián ha convocado, a través del área de Derechos Humanos, la “14ª edición Infantil y Juvenil de Arte y Derechos Humanos”. En esta edición, coincidiendo con el 70 aniversario de la Declaración Universal de los Derechos Humanos (1948), queremos invitar a niños, niñas y jóvenes a que, a través de la imagen, en cualquier técnica pictórica, expresen sus ideas sobre su importante y fundamental primer derecho, que tiene la intención de proteger y asegurar el goce pleno y en condiciones de igualdad de todos los derechos y libertades fundamentales de las personas.

De esta manera, el Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián, se ha dirigido a los centros educativos, haurtxokos, gaztelekus, asociaciones y a la ciudadanía en general para que colabore y participe activamente en esta actividad, animando y motivando a la población infantil y juvenil con el objetivo de que plasmen en sus obras sus ideas y experiencias en relación a esta temática. Se han establecido cuatro categorías en función de la edad de las personas participantes, pudiendo realizarse trabajos individualmente o en grupo dentro de éstas: de 6 a 8 años, 9 a 12 años, 13 a 15 años y de 16 a 18 años El plazo de entrega de los trabajos finalizará a las 15.00 horas, el 29 de enero de 2018. Los trabajos se deben entregar o remitir a: Ayuntamiento de San Sebastián: Derechos Humanos. Paseo de Aiete, 65. Palacio de Aiete, 1ª planta. 20009 Donostia

El jurado oficial se encargará de preseleccionar y premiar los mejores trabajos individuales o grupales y la ciudadanía también podrá premiar las mejores obras en cada categoría a través de la página web de Derechos Humanos: www.donostia.eus/gizaeskubideak.






# BREVES / LABURRAK

## KOLDO MITXELENA LITERATURA LEHIAKETA

Donostiako Koldo Mitxelena literatura lehiaketaren 29. edizioan parte hartzeko epea zabaldu da. Lehiaketaren oinarriak Donostiako ikastetxe, kultur etxe, gazteleku, haurtxoko eta liburutegi guztietan banatu dira, bai eta horretarako interesa




duten puntu orotan ere. Oinarriak www.donostiaeuskaraz.eus. webgunean ere jarri dira. Lanak entregatzeko epea 2018ko otsailaren 9an bukatzen da. Bost lehiaketa mota izango dira, baina adin tarte guztietan ez dira denak eskainiko: Komikia · Olerkia · Ipuina · Bertso papera · Mikroipuina

Lanak ikastetxeetan edo Udaleko Euskara Zerbitzuan aurkeztu behar dira, eta lanen aurre aukeraketa ikastetxeen ordezkariez osatutako epaimahai batek egingo du. Lanek 2018ko otsailaren 9rako Donostiako Udaleko Euskara Zerbitzuaren eskuetan egon beharko dute, honako helbide honetan: Konstituzio plaza, 2 – behea – 20003 Donostia.

## EUSKARAGIDA.EUS

Donostiako Udaleko Euskara Zerbitzuak euskaragida.eus izeneko euskarazko kultura eta aisial-




dirako produktuen gida argitaratu du. Bakarka, lagun artean nahiz familian aisialdia euskaraz gozatzeko era guztietako eta adin guztiei zuzendutako produktuak jasotzen dira bertan: aldizkariak, komikiak, DVDak, joko eta jolasak, musika, liburuak, hiztegiak, gurasoentzako nahiz euskara ikasteko material berezitua, web orri interesgarriak eta abar.

Produktuak jasotzaileen adinaren arabera datoz sailkatuta eta bakoitzaren ezaugarri nagusiak zehazten dira (izena, egilea, argitaletxea eta gutxi gorabeherako prezioa).

## FESTIVAL BEGIRADAK Y II FORO DE CINE Y EDUCACIÓN




Por tercer año consecutivo Ikertze organizó el pasado mes de noviembre la III edición del Festival Internacional 'Las otras Miradas-Begiradak'. Un festival que recoge cortometrajes realizados por alumnado de primaria, secundaria y diferentes colectivos, asociaciones que hacen cine de forma amateur. Se contó con la participación de alumnos de distintos Centros Escolares, que junto a profesionales del sector cinematográfico tuvieron la oportunidad de dialogar sobre algunos de los trabajos presentados.

También se llevó a cabo a finales del mes pasado El II Foro de Cine y Educación en el Aquarium de San Sebastián. Las conclusiones resultantes del año anterior fueron el punto de partida hacia un decálogo de Cine en el Aula.

## INICIATIVA "MUNDUKO BARATZA" EN LOS GAZTELEKUS

La Organización No Gubernamental para el Desarrollo Proclade Yanapai, junto a la asociación Hezi Zerb y la financiación de la Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo, está desarrollando la iniciativa Munduko Baratza. A través de este proyecto se quiere promocionar el consumo consciente y responsable en la población infantil y juvenil de Gipuzkoa, favoreciendo un cambio de actitudes y prácticas, que conlleven la transformación social del modelo de consumo actual.

Los/as adolescentes entre 12 y 17 años tendrán la oportunidad de participar en la actividad "Comercio Justo: cho-




colate". Se podrá conocer el valor que tiene el cacao a nivel mundial, comprender las injusticias que unen al chocolate y los/as niños/as, y conocer, analizar y probarlas oportunidades que ofrece el chocolate de comercio justo.

Dentro de esta iniciativa, se están llevando a cabo diferentes actividades en los Gaztelekus de Donostia. El día 22 de diciembre en Gros y el 29 en el Antiguo.

# ALKOHOLAK DITUEN ARRISKUEI BURUZKO SAIOAK

## Olazabal ikastetxeko ikasleei eta gurasoei zuzenduak

Legazpiko Udalak, Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin, programa bat martxan jarri du alkoholaren kontsumoarekin lotutako arriskuak prebenitzeko. Programa horretan Olazabal institutuko ikasleak, hamabost urtetik gorakoak, parte hartzen ari dira.

Ekimenak Alkoholaren Arriskua izena du, eta alkoholaren kontsumoak eragiten dituen kalteez eta arriskuez ohartaraztea eta kontzientzia hartzea da horren helburua; izan dezatela behar hainbat informazio jarrera arduratsua hartzeko, eta, alkohola hartzea erabakitzen badute, egin dezatela zuhurtziaz eta behar diren neurriak hartuz.

Programan Olazabal institutuko 2. Batxilergoko ikasleak parte hartzen ari dira. Saioak Ortzadar Fundazioko profesionalak gidatzen ari dira.

Gabonak pasa eta gero, urtarrilaren 16an, irakasleen eta gurasoen txanda izango da. Ikasleekin egindako lana lan-ardatz gisa harturik, irakasleekin elkartuko dira, eta kultura-etxean emango den hitzaldi batera joango dira.

Hauxe da lehenbiziko aldia Legazpiko Udalak ikastetxeetan alkohol kontsumoaren prebentzio selektiboaren programan parte hartzen duena.





# HERRI-ESKOLETAKO IKASLEAK PRESTU ASKO AGERTU DIRA TITIRIJAIRA



Aurreko urteetan bezala, aurten ere Eskola Publikoko ikasleak ilusioz beteta joan dira Titirajaira, Tolosako Txotxongiloen Jaialdira. Txotxongiloen bi ikuskizun ikusteaz eta artistekin hitz egiteaz gainera, aurten nobedade bat izan dute: bideo bat ikusi dute, hainbat gunetan zehar, gizarteak sortzen dituen hondakinen gainean, eta, hala, gogoeta egin dute hondakinek naturari egiten dioten kalteari buruz. Bideoa ikusi eta gero, Topic-en sarreran, konpartimentuetan banatuta, zeuden gune batzuetara joan dira, eta han, Bizitzeko! izenburupean, gonbita egin zaie bizi eta ikasi dutena praktikan jartzera, eta bazkarian sortutako hondakinak birziklatu dituzte.

Aurten Ataungo Joxemiel Barandiaran ikastola ikasleak izan dira, Lezoko Herri Eskolakoak, Ormaiztegiko San Andres Herri Eskolakoak, Ikaztegietako herri-ikastetxekoak, Tolosako Samaniego ikastetxekoak, Donostiako Aitorrekoak, Amasorrainekoak eta Jakintzakoak, Ordiziako Oiangurenkoak, Aiako Lardizabal herri ikastetxekoak, Albizturko eskolakoak eta Altzoko Bertsolari Imazkoak.









# TALLER BIZITZEKO!

Una de las novedades ligadas al Festival de este año ha sido la inclusión en su programa del taller BizitzEKO!, organizado conjuntamente con el departamento de Medio Ambiente de la Diputación Foral de Gipuzkoa. Un novedoso taller, dirigido al público escolar, que ha tenido en el reciclaje su piedra angular.












# EGAPE IKASTOLAK EUSKADIKO ESKOLA KONTSEILUAK SUSTATZEN DUEN PROIEKTU BATEAN PARTE HARTZEN DU

## EAEko hiru udalek bakarrik parte hartzen dute proiektuan: Santurtzikoak, Guardiakoak eta Urnietakoak.

Heziketa hobetzea: jakitea, elkarrizketan jardutea eta ekarpena egitea da Euskadi Eskola Kontseiluak eta Urnietako Udalak sustatzen duten proiektuaren goiburua. Proiektu berritzailea da, eta Euskal Autonomia Erkidegoko hiru udalek bakarrik lan egiten dute horretan: Santurtzikoak, Guardiakoak eta Urnietakoak.

Ekimen honen helburua, "elkarrizketa lasaia, zorrotza eta sakona eragitea hezkuntzaren gaur egungo egoeraren gainean, ondo ez dabiltzan gauzak detektatu, eta, ahal den neurrian, hobetzen saiatzeko eta gaur egungo beharretara eta kondizioetara egokitzeko. Era berean, "irakasleei merezi duten errekonozimendu soziala eman nahi zaie", esan dute ekimenaren bultzatzaileek.

Proiektua urtarrilean burutuko da, eta egindako lanaren ondorioak horretarako propio deitu den udalbatza batean aurkeztuko dira. Ondoren, 2018ko urtarrilaren 23an, aurkezpena egingo da Eusko Legebiltzarrean, proiektuan parte hartzen ari diren ikastetxe guztiekin. Horren helburua, Euskal Herriko instituzioetako ordezkari gorenei gogoeta horren emaitza helaraztea.

Proiektuak badu Urnietan talde bultzatzaile bat; horietako bat, besteen artean, Egape Ikastolako zuzendaritza da; horiek Eskola Kontseiluko presidentearekin, Neli Zaitegi andrearekin, eta Mikel Pagola alkatearekin bilera egiten dute aldian-aldian, lanak koordinatzeko. Proiektuaren talde bultzatzaileak dei egiten die Urnietako herritarrei parte hartzera. Zenbat eta parte hartzaile gehiago izan, hainbat eta interesgarriagoa eta aberatsagoa izango da elkarrizketa.

Garbi izan behar dugu guztiok "heziketa dela oinarria gizarte demokratikoagoa, elkartuagoa eta justuagoa lortzeko", eta era honetako proiektuak ezinbestekoak dira hezkuntza-sistema hobetzeko eta gaur egungo beharretara egokitzeko".



# DOMINGO AGIRRE PARTICIPA ACTIVAMENTE EN ‘EL DÍA INTERNACIONAL CONTRA LA VIOLENCIA HACIA LAS MUJERES’

## Los cuentos fueron el instrumento empleado para transmitir al alumnado el valor del respeto







A la marea de concentraciones, declaraciones institucionales, charlas, proyecciones... organizadas en torno al ‘Día internacional contra la violencia hacia las mujeres’, hay que sumar, con más fuerza que nunca, la voz de los niños/niñas y jóvenes, con los que desde los centros educativos y el área de Igualdad de la Mancomunidad de Urola Garaia se trabajan las herramientas para hacerle frente. El pasado 25 de noviembre sirvió, entre otras muchas cosas, para visibilizar las múltiples formas de educar en la empatía, la autoestima, la identificación de las agresiones y cómo responder ante ellas.

Los/as escolares de Domingo Agirre realizaron numerosas actividades alrededor de esta fecha, adaptadas a cada edad. Las actividades se desarrollaron bajo el paraguas de un lema no menos importante: ‘Ez ikusiarena ez egin-No hagas como que no lo has visto’. Los cuentos fueron el instrumento empleado por el colegio para transmitir al alumnado los valores de respeto y capacidad de decisión propia, el reconocimiento de las distintas situaciones de agresión y el poder de ofrecer una respuesta individual y colectiva firme ante ellas. Junto a ello, toda la comunidad escolar, desde padres y madres, hasta alumnado y profesorado, formaron un mosaico con la frase ‘Ez ikusiarena ez egin’ en el patio del colegio.

Además, el centro participa también en la campaña de la Diputación ‘Denok zu!’, dentro de la que se enseña al alumnado qué es la violencia de género en un lenguaje adecuado a su edad y se trabajan los buenos tratos hacia uno mismo y hacia los demás.




# EUSKAL ESKOLA PUBLIKOAREN 27. JAIAREN AURKEZPENA

Joan den azaroan Euskal Eskola Publikoaren Festaren 27. edizioa aurkeztu zen, 2018ko ekainaren 3an Lekeition egingo dena. Ikastetxe publiko batekin elkarlanean antolatzen du EHIGE-k urtero jai hau. 1994tik, Euskal Eskola Publikoaren Jaia ospatzen dugu guraso elkarteok, eskola-komunitateetako gainontzeko kideekin batera eskola publikoa hezkuntza-sistemaren ardatza izan behar dela aldarrikatzeko asmoz.

“Zapran gagoz” da Euskal Eskola Publikoaren 27. Jaiaren leloa. Arrantzaleek erabiltzen duten esamolde hau arrantzan zorte ona izaten dutenean. Irudiak ere herri arrantzale bat islatu nahi izan du kolore desberdinetako arrainekin. Eta guzti horrek isla dauka Lekeitioko eskola publikoan: eskola alaia eta koloretsua, gizarteari herrian errotutako kalitatezko euskal eskola publikoa eskaintzearekin inplikatuta dagoen hezkuntza-komunitatea.









ZAPRAN GAGOZ
euskal eskola publikoaren 27. jaia lekeition
ekainak3
ehige
gurasoen elkartea


SUPER BAT KONTUA
ORAIN AURREZTEA ETA GOZATZEA ABENTURA BEREAN SARTZEN DIRA
- 0 eta 16 urte bitartekoentzat.
- Erabateko malgutasunez eta komisiorik gabe.
- Aurrezkiek puntuak ematen dituzte, Super Bat Katalogoko* opariez trukatzeko.
SPALDING
STREET
* Super Bat katalogoko gaiak puntuez trukatzeak zerga du, kapital higigarriko errendimendutzat hartzen baitira.
LABORAL kutxa